# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

## 2164

*EBAZPENA, 2013ko apirilaren 19koa, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunak arautzen dituen proiektua jendaurrean jartzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunak arautzen dituen proiektua prestatu du Segurtasun Sailak; eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu beharko da proiektu hori.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes bidezkoei eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikuluarekin bat etorriz; eta euren izaera dela-eta beharrezkoa bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Eta horren ondorioz, proiektua jendaurrean jarriko da, hamar egun balioduneko epea egongo da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eta azaldutako guztiagatik eta Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 11.2.a) artikuluarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunak arautzen dituen proiektua jendaurrean jartzea, hamar egun balioduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko asmoz, proiektuaren edukia Segurtasun Sailaren Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzan egongo da eskura (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), bai eta euskadi.net-en, alegia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren, iragarki-taulan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 19a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.